

Kongoko Errepublika Demokratikoko Gobernua erreboltariekin batzartu da

Orain arte, Kabila lehendakariak ez zuen onartzen matxinoen buruekin biltzea

Agentziak / Lusaka

Kongoko Errepublika Demokratikoko (Zaire zen lehenago) bake elkarriketek bultzada handia jaso zuten atzo Gobernuako ordezkariak bi talde erre-

boltarietako agintariekin bildu baitziren Lusakan, Zambiako hiriburuan. Laurent Desire Kabila lehendakariaren gobernuako kideak erreboltariekin biltzen ziren aurreneko aldia zen atzokoa. Duela urtebete ingurutik

gerra zibila bizi dute Kongoko Errepublikan, eta gainera, inguruko herrialdeak ere nahastu dira gatazka horretan. Hori dela eta, herri horietako estatuburuak ere bildu dira Lusakan.

KONGOKO ERREPUBLIKA-KO Gobernuako ordezkariak buru Abdulaye Yerodia Atzerri ministroa izan zen atzoko bileran. Erreboltariekin, berriz, buruzagi nagusiak bidali zituzten: Demokrazia-rako Batasun Kongoarrak (DBK) Emile Ilunga eta Ernest Wamba di Wamba. gerrillako bi fakzioetako buruzagiak, eta Kongoren Askapenerako Mugimenduak (KAM) Jean Pierre Bemba arduradun nagusia.

Esan bezala, Zambiako hiriburuan, Lusakan, bildu ziren Gobernua eta talde erreboltariak, Atzerri Ministerioan, ateak itxita.

Analisten arabera, aurre-rapauso handia izan liteke atzoko batzarra, Kongoko Errepublikako Gobernuak erreboltariekin aurrez aurre biltzea onartzen duen aurreneko aldia baita.

Afrika Erdialdeko herrialde hartako gatazka zibila iazko abuztuan piztu zen, erreboltariak Kabilaren aurka altxatu zirenean. DBK da gerrillarik indartsuena, eta *banyamulengeek* osatzen dute, hau da, Kongoko tutsiek. Egun, Kongoko Errepublikako zati handi bat, ipar-mendebaldean, erreboltari banyamulengeen esku dago.

Kongoko Errepublikako mugetatik kanpora atera da, gainera, gatazka. Hain zuzen ere, Afrika Erdialdeko bost herrialde nahasi dira gerran: Rwandak eta Ugandak erre-



Kabilaren aldeko boluntarioak, iazko abuztuan, gerra hasi zenean, Autodefentsarako Armadan izena emateko zain.

boltariei laguntzen diete, eta Angolak, Zimbabwek eta Namibiak 20.000 bat soldadu bidali dituzte Kabilaren alde borrokatzeko.

Afrika Erdialdeko Atzerri ministroak

Ildo horretatik, Kongoko Gobernua eta erreboltariak ez ezik, gerran nahastu diren gainerako herrialdeetako Atzerri ministroak ere bildu ziren atzo Lusakan, eta bake

prozesuari buruzko zenbait beldur baretu ziren. Izan ere, aipatu bost herrialdeek egunak daramatzate elkarrekin harremanetan, baina aurre-rapauso handirik ez zen ikusten. Atzerri ministroen atzoko bilera urrats bat da hainbat analistaren iduriko.

Herrialde guzti-guztiekin agertu dute negoziatzeko eta bakea erdisteko borondatea, baina zenbait gairen inguruan oso jarrera kontrajarriak dituzte. Hain zuzen ere,

ezin dira adostu bakea bermatzeko indar afrikar baten sorreran eta Kongoko Armadaren etorkizuneko osaketan.

Dena dela, zailtasun handieneko puntua atzerriko tropen erretiratzeari dagokio. Izan ere, Angolak, Zimbabwek, Namibiak eta Kongoko Errepublikak exijitzen dute Rwandak eta Ugandak joan behar dutela aurrea. Bi herri horiek, berriz, erretiratzea guztiek batera egitea nahi dute.

EKIALDEKO TIMOR

■ Trantsizioko gobernua nahi du Ramos Hortak
JOSE RAMOS HORTA erresistentzia timortararren buruzagiak atzo adierazi zuen, herritarrek autonomia baztertzaren badute, trantsizioko gobernu bat eratu behar dela. Hala izaki, gobernuan parte hartu behar dute independentziaren aldekoek eta Timor Indonesiari batuta jarraitzea nahi dutenek. Kasua hala bada, bai berak baita Xanana Gusmao buruzagi gerrillariak ere Timorrera itzuli behar dutela esan zuen.

E E B B

■ Alk manifestazioa egin du Austrian, EEBBen giza eskubideen urratzea salatzeko

EEBB-ETAN giza eskubideen urratzearen aurka. Aukera anitzetako herrialde lelopean manifestazioa egin zuen atzo Amnesty Internationalek Vienan (Austria). Erakundeko bozeramailearen arabera, giza eskubideen babesle gisa aurkezten dira EEBBak munduan, «baina benetan ez da aplikatu 'eskubideak guztiontzat' oinarria».

J A M M U E T A
K A X M I R

■ Ustez musulman talde batek hamar zibil hil ditu
INDIAKO iturri ofizialek atzo jakinarazi zuten ustezko aktibista musulmanek hamar zibil hil zituztela herenegun gauean Ari herrian, Jammu eta Kaxmirren. Poliziaren arabera, estatu hori Indiatik banantzeko borrokan ari diren aktibistek hil zituzten zibilak.

PKK-k lau lagun hil dituela dio Turkiak

■ *Kurduak atentatu bat egin ondoren, segurasun indarrek bi erasotzaile hil zituzten*

Agentziak / Ankara

SEI lagun hil ziren Turkiaren menpe dagoen Kurdistanen herenegun gauean, ustez Kurdistango Langileen Alderdiak (PKK) atentatua egitean. Turkiako iturri ofizialen arabera, gerrillari kurduak Elazigeko kafetegia bat ametrailatu zuten eta lau zibil hil. Ondoren, erasotzaileak

harrapatzeko operazioa hasi zuen Turkiako Armadak eta PKK-ko bi kide hil zituen.

«Guztiekin errenditu behar dute, edo, bestela, horrela amaituko dute», esan zuen Elazigeko gobernadore Lutfullah Bilginek, soldaduek hildako kurdu baten gorpua erakutsiz.

Ustez PKK-k egindako lehen atentatua da Abdullah

Ocalan buruzagi kurdua Turkiak heriotzara zigortu ondoren.

Gobernuak PKKri leporatu dio Kurdistango Adanan egindako beste atentatu bat. Gurrupilen lantegi baten aurkakoa izan zen ekintza.

Segurtasun indarrek, bestalde, 22 kurdu hil dituzte azken egunetan Kurdistanen egin duten operazioan.